AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5016

7752/2026 EBAZPENA, azaroaren 10ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez zuzendariorde mediko-kirurgikoa bere kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta.

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen otsailaren 27ko 226/2024 Ebazpenaren bidez, Jon Alexander Sistiaga Suárez jauna zuzendariorde mediko-kirurgiko izendatu zen, izendapen askez, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan (2024ko martxoaren 19ko EHAA, 57. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak kontuan hartuta, Zuzendaritza Gerentzia honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jon Alexander Sistiaga Suárez jauna zuzendariorde mediko-kirurgikoaren kargutik kentzea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2026ko azaroaren 22ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2026ko azaroaren 10a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (1297/2025 Ebazpena, uztailaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
MARÍA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.